



**SOCIEDAD PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA - ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.REN ADMINISTRAZIO
KONTSEILUKO ARAUDIA**

I. KAPITULUA

Xedapen orokorak

1. artikulua. Helburua

Araudi honen xedea da Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jarduera printzipioak, bere antolamendu eta funtzionamenduaren oinarrizko arauak eta bere kideen portaera arauak finkatzea, dena ere Sozietatearen lana ahalik eta eraginkorrena egiteko.

2. artikulua. Aplikazio esparrua

Araudi hau derrigorrez aplikatu eta bete beharko dute Sozietatearen Administrazio Kontseiluko kide guztiak, eta baita ere, leialtasun, fideltasun eta sekretua zaindu beharrari dagokionez, Sozietateko zuzendaritzako goi kargu guztiak, nahiz eta kontseilarri ez izan, beren eginkizun bereziekin bateragarri den neurrian.

Era berean, Araudia aplikagarri izango zaie administrazio mailako erantzukizunak, handiak nahiz txikiak, dituzten guztiei.

3. artikulua. Indarrean sartzea eta aldaketa

Araudia indarrean sartuko da Administrazio Kontseiluak onartzen duen egunean bertan.

Administrazio Kontseiluari dagokio Araudiari aldaketak egitea, hartarako eskaria egiten duenean Presidentziak edo Kontseiluko hiru kidek, aldaketa horiek egiteari komenigarri iritzita.

Araudia aldatzeko eskari guztiak arrazoitu egin behar dira; horretarako, aldaketak egiteko eskaria egiten dutenek txosten bat aurkeztu beharko dute azalduz nolako aldaketak egin nahi dituzten eta zergatik.

Araudia aldatzeko proposamen bati buruz ebatziko duen Kontseilurako deialdia gutxienez hamar egun naturaleko aurretiaz egin beharko da. Deialdiarekin batera

banatuko da proposamenaren testua eta aldaketarako arrazoiak biltzen dituen txostena.

4. artikulua. Interpretazioa

Araudia interpretaterakoan kontuan hartuko dira aplikagarriak diren lege arauak eta Estatutuak.

Arau horiek interpretaterakoan derrigorrez beteko dira gobernu korporatiboaren gaineko informazio, gardentasun eta segurtasuneko oinarrizko betebeharra.

Administracio Kontseiluari gehiengoz dagokio Araudia aplikatzean eta interpretatzean sor daitezkeen zalantzak edo desadostasunak ebaztea.

Kontraesanen bat badago, Legeak eta Sozietatearen Estatutuak gailenduko zaizkio Araudiari.

5. artikulua. Hedapena

Kontseilariek eta Sozietatearen zuzendaritzako goi karguek derrigorrez ezagutu, bete eta betearazi behar dute Araudia. Horretarako, Kontseiluko idazkariak Araudiaren ale bana emango die euren izendapena onartzen duten unean edo kontratatuak direnean, kasuan-kasuan.

II. KAPITULUA

KONTSEILUAREN OSAKETA

6. artikulua. Osaketa

Administracio Kontseiluak gutxienez hiru kide izango ditu eta gehienez hemezortzi, eta Akziodunen Batzar Orokorrak izendatuko ditu, indarreko legeria eta Estatutuak beteta.

Egokierak hala gomendatzen duenean, Bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan kontseilarri independenteak izatea.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko indarreko legeriari jarraituz, Bazkideek Batzar Nagusian proposatuko dute Kontseiluan modu orekatuan ordezkatuak egon daitezela gizonetakoak eta emakumeak.

Artikulu honetan xedatuak ez du ezertan kaltetzen akziodunen ordezkaritza proporcionalerako legezko eskubidea.

III. KAPITULUA

KONTSEILUAREN EGITURA

7. artikulua. Kontseiluaren Presidentzia

Administrazio Kontseiluak kideen artean aukeratuko du Presidentea.

Presidenteari dagokio Administrazio Kontseilurako deialdiak egitea, bere bilkuretako gai-zerrenda prestatzea eta eztabaidak zuzentzea. Nolanahi ere, Presidenteak Kontseilua deitu beharko du kideen herenak hala eskatuz gero.

Presidenteak zeregin hauek izango ditu:

- Bere kide guztiak Administrazio Kontseiluko batzarretara azaldu daitezen arduratzea, denei deialdi bana bidaliz Araudi honetan esaten den eran eta epean.
- Kontseilariren batek sarri huts egiten baditu Administrazio Kontseiluetako batzarrak, egiaztatzea zergatik ez den azaltzen batzarretara.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, bai eta ebaluazio horretatik hel daitezkeen hobekuntza proposamenen aplikazioa, edo ohartutako akatsen zuzenketa.

8. artikulua. Kontseiluaren Presidenteordetza

Administrazio Kontseiluak kideen artetik izendatuko d(it)u Presidenteordea(k) eta hori izango da presidentea ordezkatuko duena azken honen ezintasun edo absentzia kasuetan eta, oro har, kasu guztielan bere gain hartuko ditu Kontseiluaren nahiz presidentearen beraren ustez komeni diren zeregin eta eskumen guztiak.

Presidenteorde bat baino gehiago daudenean, izendatzen direnean Kontseiluak finkatuko duen hurrenkeran beteko dute beren lana.

9. artikulua. Kontseiluaren Idazkaritza

Administrazio Kontseiluak idazkari bat izendatuko du, kontseilarri izan beharrik ez duena.

Idazkariak lagundu egingo dio bere lanetan presidenteari, behar den aholkularitza eta informazioa emango die kontseilariei, soziitatearen dokumentazioa gordeko du, txukun jasoko ditu akta-liburueta batzarretako gorabeherak, eta soziitatearen akordioen ziurtagiriak egingo ditu.

Idazkariak kontu egingo du ondo zaindu daitezen Administrazio Kontseiluko barne funtzionamenduko arauak eta ondo bete daitezen prozedurak.

Idazkariak bere gain hartuko du, eta kontu egingo du ondo betetzen dela akta jasotze eta sinatze prozedura osoa. Orobak arduratuko da aktak kontseilarik guztiei bidaltzeaz.

Prozedura bat finkatuko da bermatzeko idazkariak ondo betetzen dituela Sozietaaren dokumentazio eta liburu ofizialak zaintzeari buruzko arauak, eta barneko auditoriaren emaitza Gobernu Arduratsuko Txostenean jasoko da.

10. artikulua. Kontseiluaren Idazkariordetza

Administrazio Kontseiluak idazkarioorde bat izendatu ahal izango du —ez du zertan izen beharko kontseilarik—, lagundu diezaion Kontseiluko idazkariari edo idazkariaren ordez ari dadin honek bere lana ezin bete dezakeenean absentzia edo ezintasunez.

11. artikulua. Kontseilarri delegatua

Kontseiluak kontseilarri delegatu bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu eta, edo zeregin jakin batzuk —egoki zehaztuko direnak— delegatuko ditu eurengan, edo legez eta Estatutuen arabera delegatu daitezkeen zeregin guztiak jarriko ditu beren ardurapean.

Kontseilarri delegatuak bat baino gehiago badira argitu egingo da zein lan egingo dituzten solidarioki, zein partzuergoan, edo, hala balegokio, zeregin guztiak edo batzuk modu batera ala bestera egin behar ote dituzten.

12. artikulua. Batzorde Exekutiboak

Kontseilarri bat indibidualki delegatu dakizkiokeen zereginen kalterik gabe, Administrazio Kontseiluak Batzorde Exekutibo bat eratu ahal izango du, espresuki esleituko zaizkion zereginak bete ditzan.

Eratuko balitz, Batzorde Exekutibo horretako kide izango lirateke Presidentea, bi Kontseilarri (horietako bat kapitalaren gehiengoak izendatutakoentzat artean aukeratua eta bestea kapitalaren gutxiengoak izendatutakoentzat artean aukeratua) eta Zuzendarri Nagusia.

Administrazio Kontseiluko Presidentea izango da Batzorde Exekutiboko Presidentea eta Kontseiluko Idazkariak egingo ditu idazkaritza-lanak, hala behar balitz Idazkariordearen laguntzaz.

Nolanahi ere, Batzorde Exekutiboan ezingo dira delegatu berez delegatu ezin diren eskumenak, ez eta Kontseiluaren gainbegiraketa funtzioko orokorra aplikatzeko beharrezko direnak.

Batzorde Exekutiboaren saioak Presidenteak deitutakoan egingo dira.

Batzorde Exekutiboak Kontseiluari jakinaraziko dizkio saioetan landu dituzten gaiak eta hartu dituzten erabakiak eta horien aktak jasoko dira Administrazio Kontseiluarentzat ezarritako terminoetan.

IV. KAPITULUA

KONTSEILUKO LANTALDEAK

13. artikulua. Administrazio Kontseiluko lantalde operatiboak

Kontseilarri bati indibidualki delegatu dakizkiokeen zereginak gorabehera, eta erabakitzeko ahalmen orokorreko Batzorde Exekutibo bat eratzeko daukan eskumenaren kalterik gabe, Kontseiluak lantalde delegatuak ere sortu ahal izango ditu jarduera-esparruka, eta izaera aholku-emaileko beste organo batzuk ere bai.

Administrazio Kontseiluaren idazkaria izango da lantalde horietako idazkari, eta bera ez dagoenean idazkariordeak egingo du lan hori. Lantaldeak batuko dira bakoitzaren presidenteak dagokion deialdia egin ondoren. Espresuki aurreikusi gabeko kasuetan, Kontseiluari buruzko Sozietatearen Estatutuetako eta Araudiko funtzionamendu-arauak aplikatuko dira, bateragarriak baldin badira kasuan kasuko lantaldeko izaera eta zereginekin.

Kontseiluak sortutako lantalde guztiekin beren batzarretako aktak jasoko dituzte Administrazio Kontseilurako, hartarako zehaztutako eran.

V. KAPITULUA

KONTSEILUAREN ZEREGINAK

14. artikulua. Kontseiluaren eskumenak

Salbu Batzorde Nagusiaren eskumeneko gaietan, Administrazio Kontseilua da Sozietatearen erabakitzeko, kontrol eta ordezkaritzako organo gorena.

Sozietatearen kudeaketa arrunta organo exekutiboetan eta zuzendaritza taldean delegatzea, eta bere jarduna gainbegiratze-lan orokorean zentratzea izango da Kontseiluaren politika.

Ezin delegatuko dira legez edo Estatutuz Kontseiluarenak diren eskumenak, eta ezta ere gainbegiratze lana arduratsuki betetzeko beharrezkoak diren beste eskumenak.

Sozietateko Estatutuetan aitortzen zaizkion zereginetan gain, Administrazio Kontseiluak zeregin hauetakoak ere izango ditu:

.- Sozietatearen Plan Estrategikoa onartzea eta aldiro egiaztatzea noraino garatu eta aplikatu den.

.- Urteko Kudeaketa Plana eta haren barruan dagoen aurrekontu proposamena onartzea, eta Plan horren exekuzioari buruzko ebaluazio partzialak egitea.

15. artikulua. Enpresaren egoerari buruzko eta bere jarduna garatzen duen inguruneari buruzko informazioa

Kontseiluko batzarretako gai-zerrendan Sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko puntu bat sartuko da eta gutxienez urtean behin informazio zehatza emango da egoera ekonomiko orokorrari buruz eta euskal sektore ekonomiko nagusiei buruz.

16. artikulua. Inbertsio erabakien inpaktu sozial eta ekonomikoa

Kontseiluaren onespena jaso behar duten inbertsio-memorietan txosten bat erantsiko da inbertsio horien inpaktu sozial eta ekonomikoari buruz, eta dagokion batzarreko aktan jasoko da nola baloratzen dituen Kontseiluak alderdi horiek.

VI. KAPITULUA

KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA.

17. artikulua. Kontseiluaren batzarrak

Administrazio Kontseiluak derrigorrez egingo ditu ohiko batzarrak gutxienez urtean lau aldiz, hiru hilabeterik behin.

Era berean, Kontseiluak ezohiko batzarrak egingo ditu, presidenteari iruditzen zaionean halakoak egitea komenigarria dela Sozietatearentzat.

Ohiko batzarretarako deialdia gutunez, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz egingo du idazkariak edo idazkarioordeak, presidenteak aginduta.

Deialdia gutxienez batzarra baino hamar egun natural lehenago egingo da baldin gutunez egiten bada, eta zazpi egun natural baino lehenago baldin posta elektronikoz egiten bada. Deialdia kontseilarri bakoitzak emandako helbideraigorriko da eta deialdiarekin batera bidaliko da batzarreko gai-zerrenda eta berari dagokion informazioa.

Kontseiluaren ezohiko batzarrak telefonoz deitu ahal izango dira gutxienez 48 orduko aurretiaz, eta ez dira aplikagarri izango aurreko paragrafoan esandako betebeharrik baldin presidenteari iruditzen bazaio egoerak hala jokatzea gomendatzen duela.

Administrazio Kontseiluaren batzarrak Sozietatearen egoitza sozialean egingo dira normalean, baina berdin egin ahal izango dira presidenteak erabakitzenduen beste edozein lekutan, deialdian leku hori egoki zehatzuz gero.

Deialdirik gabeko Kontseiluko batzarrak baliozkoak izango dira, baldin eta kontseilarri guztiak bertaratuak edo ordezkatuak egonik, denek aho batez onartzen badute batzarra egitea.

Kontseiluaren erabakiak idatziz eta batzarrik egin gabe hartu ahal izango dira, baldin ezein kontseilarik ez badu ezer adierazten prozedura horren aurka.

Batzar bakoitzerako deialdian adierazi egingo da zenbat denbora iraungo duen gutxi gorabehera batzarrak, eta denbora hori behar adinakoa izango da gai-zerrendako puntuak sakon aztertzeko eta galdera-eskarietarako astia izateko.

Urtean behin Kontseiluak bere kideen artean inuesta bat egingo du bere kudeaketa eta egin dituen lanen kalitatea ebaluatzeko. Era berean, urtero prestatuko du Gobernu korporatiboari buruzko txosten bat Batzorde Nagusiaren esku jartzeko eta bertan ebaluatuko du Sozietatearen organoen funtzionamendua.

18. artikulua. Batzarren garapena

Kontseilua legez eratuta geratuko da gutxienez bere kideen erdiak gehi bat aurkezten direnean, zuzenean nahiz ordezkarien bitartez. Kontseilarri kopurua bakoitia bada, aurreko baldintza hori betetzat joko da, baldin eta bertaratutako eta ordezkatutako Kontseilarri kopurua bertaratu ez direnena edo ordezkaritzarik ez dutenena baino handiagoa bada.

Kontseilariak behartuta daude Kontseiluko batzarretara azaltzen, eta ezin azaldu badira saiatuko dira Kontseiluko beste kide bat bidaltzen beren ordez. Zeregin horretarako, ordezkariak idatziz egingo da eta idazkian jasota egongo dira dagozkion argibideak. Zalantzaren bat sortzen denean, presidenteak erabakiko du batzarrera azaldu gabeko kontseilariek emandako ordezkartzak baliozkoak diren ala ez.

Presidenteak eztabaidea antolatuko du eta saiatuko da kontseilari guztiak parte har dezaten organoaren eztabaidetan. Iruditzen zaionean kasuan kasuko aztergaia nahikoa eztabaidatuta dagoela, bozketa eginaraziko du.

Legeak, Sozietatearen Estatutuek edo Kontseiluko Araudiak gehiengo indartsu bat eskatzen duten kasuetan izan ezik, batzarrera zuzenean nahiz ordezkarien bidez azaldutako kontseilarien erabateko gehiengoz hartuko dira akordioak. Presidenteak edo bere ordez ari denak kalitatezko botoa izango du berdinaketa kasuak ebazteko.

Batzarrera zuzenean zein ordezkari bidez azaldutako kontseilari bakoitzak bota bana izango du.

19. artikulua. Kontseiluko aktak

Administrazio Kontseiluko batzarreko aktak Kontseiluko idazkariak jasoko ditu, eta idazkaria ez balego, idazkariordeak, izendatuta balego. Bietako inor ez balego, Kontseilari gazteenak jasoko du akta edo bestela Kontseiluak bileran bertan aukeratutako pertsonak.

Akta bakoitza Kontseiluak berak onartuko du batzarra amaitu ondoren edo hurrengo batzarrean.

VII. KAPITULUA

KONTSEILARIEN IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA

20. artikulua. Kontseilarien izendapena

Batzar Nagusiak izendatu eta berraukeratuko ditu kontseilariak, Kapital Sozietateen Legearen xedapenei, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuari (Euskadiko Ondare Legearen Testu Bategina onartzekoa dena) eta Sozietatearen Estatutuei jarraiki.

Idazkariak informazioa eta argitasunak emango dizkie kontseilari berriei enpresaren alderdi garrantzitsuenei buruz, Kontseiluak azertutako gai

importanteenei buruz, Kontseiluaren Araudiari buruz eta batzarren funtzionamenduaz.

21. artikulua. Karguaren iraupena

Kontseilariaiak karguaren jabe izango dira Sozietatearen Estatutuetan finkatutako epean, eta epe hori amaitu ondoren aukera izango dute berriro aukeratuak izateko epe berdinerako edo epe laburrago baterako.

Kooptazioz izendatutako kontseilariek kargua beteko dute lehenbiziko Batzar Nagusia egiten den eguna arte.

22. artikulua. Kontseilarien kargu-uztea

Kontseilariek karguari utziko diote kargua betetzeko ezarria duten epea bukatzen zaienean, edo Batzorde Nagusiak, legez eta Estatutuz dagozkion eskumenak baliaturik, hala erabakitzenten duenean.

Kontseilariek Administrazio Kontseiluaren esku jarri beharko dute beren kargua eta, honek egoki irizten dionean, beren dimisio formala aurkeztu beharko dute ondoko kasuetan:

- a. Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.
- b. Kontseilarri gisa dituzten betebeharrauk hausten dituztenean.
- c. Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuak jar ditzakeenean.

VIII. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN EGINBIDEAK (KODE DEONTOLOGIKOA)

23. artikulua. Portaera-irizpideak

Hona hemen Administrazio Kontseiluaren jarduna aldioro gidatu behar duten irizpideak:

- a. Xede soziala betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasuna defendatzea.
- c. Sozietatearen balioa handitzea

Hori guztia egiteko optimizatu egingo da eskura dauden baliabideen kudeaketa, fede onez beteko dira langile, hornitzairen eta finantzarien hitzartutako kontratuak eta, oro har, Soziitatea modu arduratsuan kudeatzeko behar diren eginbide etikoak zainduko dira.

Antolaketa korporatiboari dagokionez, Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu Kontseiluak Soziitatearen zuzendaritza gainbegiratzen duela bermatzeko.

24. artikulua. Kontseilariaren betebehar orokorrak

Kontseilariaren lana da Soziitatearen kudeaketa gidatu eta kontrolatzea, balioaren sorkuntza maximizatzeko.

Bere funtziak betetzean kontseilariak fede onez eta enpresari ordenatu baten arduraz jokatuko du, ordezkari leiala izango da eta Legeak ezarritako eginbeharrak beteko ditu Soziitatearen interesak zainduz.

Legeak ezarritako betebehar guztiez gain, Kontseilariak ondoko hauek bete beharko ditu:

- a. Behar diren denbora eta indarrak erabiliko ditu jarraipen erregularra egiteko Soziitatearen administrazioarekin lotutako gaiei, eta horretarako behar duen informazio guztia eskatuko du.
- b. Konpromiso pertsonala hartuko du Kontseiluko batzarretara joateko eta eztabaidetan modu aktiboan parte hartzeko, bere iritziaren bidez eraginkortasunez laguntzeko erabakiak hartzen.
- c. Bete egingo du Administrazio Kontseiluak enkargatzen dion edozein zeregin, baldin bere dedikazio esparruaren barruan sartzen dena bada.
- d. Bere jakinera iristen bada Soziitatearen kudeaketan ezelango irregulartasunik egiten ari dela, ikertu egingo du eta arrisku egoera guztiak zainduko ditu.

Oro har, bete egingo ditu legeek eta Araudiek agintzen dituzten eginbideak, leial jokatuko du soziitatearen interesekiko, aurkaratu egingo ditu Legearen, Soziateko Araudien zein interes sozialaren kontra doazen akordioak, eta iruditzen bazaio interes sozial horiek hobeto defendatzen direla bere aurkaratzea aktan jasoarazita, hala egiteko eskatuko du.

25. artikulua. Isilpekotasun-betebeharra

Beren kargualdia bukatu ondoren ere kontseilariek isilik gordeko dituzte informazio konfidentzialak eta ezingo dute salatu karguan egon diren denboran jakindako datuak, txostenak edo aurrekariak. Datu horiek ezin jakinaraziko

dizkiete hirugarren batzuei eta ezingo diete zabalkunderik eman Sozietatearen interesen kalterako gerta daitekeenean.

26. artikulua. Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra

Baldin kontseilariek interes partikularak baditzte beren erabakiak baldintzatu ditzaketenak, behartuta daude interes horiek Sozietatearen jakinean jartzera.

Sozietatearen eskariz, kontseilariak Sozietateari jakinarazi beharko dizkio Sozietateak duen xede soziala bezalako, antzeko eta osagarriko jarduera duten beste Sozietate batzuetako kapitalean dituen partizipazioak, Sozietate horietan betetzen dituen kargu edo zereginak, Sozietateak duen xede soziala bezalako, antzeko edo osagarriko jarduera duten beste Sozietate batzuetan bere kontura egiten duen lana, eta, oro har, Sozietateko administrari bezala esanguratsu gerta daitekeen beste edozein gertakari edo egoera.

Era berean, kontseilariak Sozietateari jakinaraziko dizkio bere egoera profesionalean gertatzen diren aldaketa esanguratsu guztiak, baldin aldaketa horien ondorioz aldatu egiten bada pertsona hori kontseilari izendatua izatera eraman zuen izaera edo egoera, edo baldin aldaketa horien ondorioz interes-gatazka bat sortzen bada.

Orobat, baldin kontseilaria edozein erreklamazio judizial, administratibo edo bestelako batean sartuta aurkitzen bada, eta erreklamazio hori hain munta handikoa bada non kalte larria egin baitiezaioke Sozietatearen ospearri, kontseilaria behartuta dago Sozietatea egoera horretaz jakitun jartzera.

27. artikulua. Interes-gatazka

Sozietateari zor dion leialtasun-eginbidea dela medio, kontseilariak kontu izango du ez dadin gatazka-interesik sor bere edo berarekin erlazionatutako pertsonen eta Sozietatearen artean. Aldiz, gatazka-interesa eragozterik ez badu, haren berri emango dio Sozietateari. Bereziki:

- Kontseilariarekin zuzenean nahiz zeharka zerikusia duten gaiei buruzko eztabaidetara ez da azalduko eta ez du horietan parte hartuko.
- Kontseilariak ez du egingo Sozietatearekin, ez zuzenean ez zeharka, zerbitzu profesional edo komertzialen inolako transakziorik, salbu aurretiaz jakinarazten badu interes-gatazka dagoela eta Kontseiluak erabakitzetan badu transakzio hori ontzat hartzea.

- Kontseilariak ezin du aprobetxatu, bere edo harekin lotura duten pertsonen onurarako, Sozietatearen negozio-aukerarik. Halakotzat jotzen da Sozietatean sortutako edo Kontseilariak, bere kargua dela-eta edo Sozietatearen informazio-bideak erabiliz aurkitutako edozein inbertsio edo eragiketa komertzial egiteko aukera.

Kontseilariek, edozein gehiegikera edo ez-betetzeren berri dutenean —eta, bereziki, informazio garrantzitsu edo pribilegiatuaren erabilerarekin lotua badago— lehendakariari jakinarazi behar diote, Sozietatearekiko duten leialtasunagatik.

28. artikulua. Sozietatearen izena erabiltzea

Kontseilariak ezingo du erabili Sozietatearen izena, ez baliatu Sozietateko administrari izaera, eragiketak bere kontura egiteko edo berarekin zerikusia duen beste inoren kontura.

29. artikulua. Informazio ez-publikoa

Sozietatearen informazio ez-publikoa helburu pribatuetarako erabili ahal izango da, soilik baldin erabilera horrek Sozietateari ez badio kalterik egiten.

30. artikulua. Lotutako pertsona

1. Aurreko artikuluen ondorioetarako, administratzaileekiko loturak dituzten pertsonatzat joko dira ondokoak:

- a) Administratzailearen ezkontidea edo antzeko lotura afektiboa duten pertsonak.
- b) Administratzailearen edo haren ezkontidearen aurreko ahaideak, ondorengoak eta neba-arrebak.
- c) Administratzailearen aurreko ahaideen, ondorengoen eta neba-arreben ezkontideak.
- d) Sozietateak, baldin eta sozietate horietan administratzailea, zuzenean edo tarteko pertsona baten bitartez, Merkataritza Kodeko 42. artikuluaren lehen atalean jasotako egoeraren batean badago.

2. Administratzaile den pertsona juridikoari dagokionez, lotura duten pertsonatzat joko dira ondokoak:

- a) Bazkideak, baldin eta bazkide horiek Merkataritza Kodeko 42. artikuluaren lehen atalean jasotako egoeraren batean badaude administratzailea den pertsona juridikoarekiko.
- b) Eskubidezko eta egitatezko administratzaileak, likidatzaileak eta administratzaile den pertsona juridikoaren ahalmen orokorrik dituzten ahalduak.
- c) Talde bereko kide diren sozietateak eta haietako bazkideak.
- d) Administratzaile den pertsona juridikoaren ordezkariarekiko loturadun pertsonatzat jotzen direnak, aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera.

31. artikulua. Betebeharren irismena

- a) Araudiaren kapitulu honetan jasotzen dira Kontseilariek Sozietatearekiko dituzten betebeharrak eta analogiaz ulertuko da betebehar horiek baita ere aplikatuko direla Taldeko sozietateekin dituzten harremanetan. Era berean, Araudiaren kapitulu honetan jasotako betebeharrak exijitu ahalko zaizkie pertsona juridikoen (esan nahi baita kontseilarien) ordezkari diren pertsona fisikoei.

IX. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN ESKUBIDE ETA AHALMENAK

32. artikulua. Informazio eta ikuskapen ahalmenak

Kontseilaria ahalmen zabalenak ditu Sozietateari buruzko edozer gairi buruz informazioa eskuratzeko, bere liburu, erregistro, dokumentu eta Sozietatearen eragiketen gainerako aurrekari guztiak aztertzeko eta bere instalazioak ikertzeko.

Informazio eskubide hori berdin hedatzen da mendeko Sozietateetara eta partaidetutako Sozietateetara.

Sozietatearen eguneroko kudeaketa ez oztopatzeko, informazio ahalmena presidentearen bitartez gauzatuko da, edo presidenteordearen bitartez, edo Kontseiluko idazkariaren bitartez; horiek adituko dituzte kontseilariaaren eskariak eta zuzenean emango diote eskatutako informazioa, solaskide egokiak eskainiz dagokion mailan, edo neurriak hartuz “in situ” egin ahal izan ditzan desio dituen ikerketa eta ikuskapenak.

33. artikulua. Adituen laguntza

Beren jarduna aurrera eramateko laguntasuna behar duten kontseilarri guztiak aukera izango dute lege aholkulariak, kontabilitatekoak, finantzakoak edo bestelakoak kontratatzeko edo batzarretan lagunzaile jarri dakizkien eskatzea.

Halako lagunzaile bat eskuatu eta eskuratzeko, beharrezkoia izango da argitu nahi den arazoak gutxieneko mutua eta konplexutasun maila izatea, eta eskatzaileari bere karguko jardunean agertutakoa izatea.

Lagunzaile bat kontratatu nahi denean Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio. Kontratazioa ezetsi egin daiteke baldin ondoko zerbaite frogatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoia enkargatutako lana egiteko.
- b. Kostuak ez duela proportziorik gordetzen arazoaren garrantziarekin.
- c. Sozietateko aditu eta teknikariek berdin egoki eman dezaketela eskatutako lagunza teknikoa.

34. artikulua. Kontseilarriaren ordainsaria

Kontseilariek ez dute inolako soldatarik jasoko beren karguko lanaren truke.

Sozietateak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuko du bere kontseilarentzat.

X. KAPITULUA

GOBERNU KORPORATIBOA

35. artikulua. Gobernu korporatiboaren txostena

Administrazio Kontseiluak gobernu korporatiboari buruzko informazioa argitaratuko du urtero egingo den jarduera-txostenean edo Sozietatearen web orrian.

Txosten horretan xehekiro argitu beharko da zein den Sozietaeko gobernuaren egitura eta zein bere funtzionamenduaren egitura praktikan. Gobernu Korporatiboko txostenak gutxienez informazio hau jasoko du:

1. Sozietaaren jabetza egitura.
2. Sozietaeko administrazioaren egitura, zehatztuz zein diren Administrazio Kontseiluaren osaketa, antolaketa eta funtzionamendu arauak, eta bere kideen nortasuna eta lansariak.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Nagusiaren funtzionamendua, egiten dituen batzarrei buruzko informazioarekin.
5. Gobernu korporatiboko gomendioen jarraipen maila edo, gomendio horiek jarraitu ezik, horren arrazoia.

Gobernu korporatiboaren lehenbiziko txostena 2010eko ekitaldi ekonomikoari buruz izango da.

**REGLAMENTO DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE “SOCIEDAD
PARA LA TRANSFORMACIÓN COMPETITIVA – ERALDAKETA
LEHIAKORRERAKO SOZIETATEA, S.A.”**

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 1. Objeto

El Reglamento tiene por objeto establecer los principios de actuación del Consejo de Administración de la Sociedad, las reglas básicas de su organización y funcionamiento y las normas de conducta de las personas que lo componen, todo ello con el fin de alcanzar la mayor eficacia en su gestión.

Artículo 2. Ámbito de aplicación

El Reglamento será de aplicación y de obligado cumplimiento para todas las personas que componen el Consejo de Administración de la Sociedad, así como, en la medida en que resulten compatibles con su específica naturaleza, y para las personas que ostenten cargos de alta dirección en la Sociedad, aunque no ostenten la condición de Consejeros, o Consejeras, en todos aquellos aspectos del mismo referidos a los deberes de fidelidad, lealtad y secreto.

Asimismo, el Reglamento será de aplicación a quienes, de hecho y por cualquier causa, con mayor o menor notoriedad, asuman responsabilidades de administración.

Artículo 3. Entrada en vigor y modificación

El Reglamento entrará en vigor en la fecha de su aprobación por el Consejo de Administración.

Corresponde al Consejo de Administración introducir modificaciones en el Reglamento, a instancias de la Presidencia, o de tres personas componentes del Consejo, en ejercicio del cargo, cuando estimen que concurren circunstancias que lo hacen necesario o conveniente.

Toda petición de modificación del Reglamento deberá ser razonada, a cuyo efecto quienes la soliciten deberán acompañar al texto de la propuesta un informe justificativo de las causas y el alcance de la modificación que se propone.

La convocatoria de la reunión del Consejo que haya de deliberar y decidir sobre una propuesta de modificación del Reglamento se hará con una antelación mínima de diez días naturales. A la convocatoria se habrá de adjuntar el texto de la propuesta y del informe justificativo.

Artículo 4. Interpretación

El Reglamento se ha de interpretar de conformidad con las normas legales y estatutarias que resulten de aplicación.

Los deberes básicos de información, transparencia y seguridad en materia de gobierno corporativo serán principios inexcusables en la interpretación de estas normas.

Corresponde al Consejo de Administración, por mayoría, resolver las dudas o discrepancias que puedan suscitarse en la aplicación e interpretación del Reglamento.

La Ley y los Estatutos Sociales prevalecerán en caso de contradicción con lo dispuesto en el Reglamento.

Artículo 5. Difusión

Las Consejeras y los Consejeros y el personal de alta dirección de la Sociedad en lo que les sea de aplicación, tienen la obligación de conocer, cumplir y hacer cumplir el Reglamento. A tal efecto, el Secretario, o Secretaria, del Consejo les facilitará un ejemplar del Reglamento, en el momento en que acepten su nombramiento, o sean contratados, según el caso.

CAPÍTULO II

COMPOSICIÓN DEL CONSEJO

Artículo 6. Composición

El Consejo de Administración tendrá de un mínimo de tres componentes, y un máximo de dieciocho, que serán designados por la Junta General de accionistas con sujeción a los preceptos legales y estatutarios vigentes.

Los socios propondrán en la Junta General, cuando las circunstancias así lo aconsejen, que en su composición haya Consejeros, o Consejeras, independientes.

